

CANVAS EREDUA: READEASE
<https://readease.cms.webnode.es>



AURKIBIDEA:

1. IDEIA	2.or
2.BALIOA	3.or
3. SEGMENTAZIOA	4.or
4. ELKARTEAK	5.or
5. IRABAZI ITURRIAK	6.or
6.KANALAK	7.or
7.HARREMANAK	8.or
8.BALIABIDEAK	9.or
9.JARDUERAK	10.or
10.KOSTUAK	11.or

1. IDEIA:

Idea berritzaile bat burutzeko, lehendabizi, beharrak identifikatu behar dira. Gure kasuan, taldean ez daukagun, baina beste gizarte talde batean sumatu dugun behar bat hartu dugu kontuan.

Talde hori dislexia edo ikusmen arazoak dituztenak osatzen dute. Hauek behar bereziak dituzte ikasteko. Ohikoak diren eta gainerako ikasleak erabiltzen dituzten testu liburuak irakurtzeko eta klase teorikoak jarraitzeko zailtasunak dituztenez, laguntza emango dieten baliabideak eskaintzea nahiko genuke.

Ikerketek diotenez, 10 pertsonatik batek dislexia sufritzen du; sendabiderik existitzen ez bada ere metodologia ugari erabil daitezke laguntza gisa. Dislexiak eragiten dituen arazo larrienak irakurtzeko orduan, zenbakiak, izenak, xehetasunak gogoratzean eta idazterakoan nabaritzen dira. Arazo hauei aurre egiteko, nahitik abiatuta sortu da gure ideia.



Bestalde, gure ideia nagusiaren abiapuntua hori bazen ere, audio liburuak erabil daitezke ikusmen arazoak dituzten beste ikasle batzuentzat, arazo desberdina badute ere konponbidea berdina delako.



Arestian esan dugun ideia burutzeko, existitzen den beste aplikazio batetik abiatu ginen. Konturatu ginen, irakurle digitalak bazeudela, baina, gure ideia ekintzaileak zerbitzu hobea eskainiko du, beraz, gure ideia nagusia jada sortua dagoen hori hobetzea da. Bertan ahots robotikoarekin irakurtzen delako testu liburua, eta gure ideia, erreal den norbaitek, interpretazio eta jarraipen on batekin irakurtzea izango litzateke, esperientzia hobezina izateko.

Beraz, eskoletan ematen diren testuak interpretazio egokienarekin entzuteko aukera ematen duen zerbitzua da gure ideia.

Zerbitzu honek arrakasta izan dezan, argitaletxe baten barruan egongo den zerbitzu bat izango ginateke. Argitaletxeek hiru zerbitzu ematen dituzte, liburu fisikoak, online bidezko liburuak eta batzuetan itsuei egokitutako irakurketa sistema. Horren aurrean, gure ideia audio-liburuak sortzea litzateke eta zerbitzu gehiago eta lagungarriagoak ematea beharra duten pertsonen.

LABURBILDUZ:

- **Ikasle dislexiko eta itsuei zuzendutako audio-liburuak sortu** nahi ditugu beraien ikasprozesuan lagundu eta inklusibitatea sustatzeko.

